



Sarrera guztiak aspaldi zeuden salduta antiguatarrek Mikel Laboari 75. urtemugan eskaini nahi zioten festarako. Jendeak kanpotik ere jarraitu zuen ikuskizuna. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Esperimentazioa eta tradizioa, dantza eta txalaparta, artistak eta auzoa batu egin dira Mikel Laboari Donostiako Antiguak egin dion omenaldi bero eta hunkigarrian. Txiki gelditu da frontoia.

Ainara Gorostitzu Donostia

**B**aina horrela, ez zen gehiago txoria izango. Eta nik, txoria nuen maite...». Oholtza gainean, ekitaldian parte hartu zuten berrogeitik gora musikari, bertsolari eta dantzarien ahotsek eta behean zazpiehundurik gora auzokide, lagun eta jarraitzailek egin zioten kantu, egin zioten omen, Mikel Laboari, herenegun gauean Donostiako Antigua auzoko frontoian. *Txoria txori* goizaldeko ordu bata eta erdietan iritsi zen. Antiguotarrak Elkarteak eta Antiguotarrak Dantza Taldeak 40 urtez auzokide izandakolari haren 75. urtemugaren kari—bihar beteko lituzke urteak Laboak— zorionak eta eskerrak emateko ekitaldi bero, goxo eta maitekorra biribildu zuen momentua izan zen.

Une hunkigarritz beteriko gaua izan zen Antiguako ostiralekoa. Lüberri abesbatzarekin hasi, eta Maialen Lujanbio eta Andoni

Egañaren bertsoetatik Iker Goenagaren *Azken* trikiti piezara, edo Kukairen fandangotik Xabi Strubell eta Nerea Olaxaren bossa novara, nahiz Erramun Martikorenaren bertsoetatik Eneko Abregoren (Inoren Ero Ni) flamenkorra. Guztiek zerbait berezia eskaini nahi izan zioten Laboari, eta haren auzoari.

*Txoria txori* batuaren aurretik, Anarik itxi zuen gaua, bere kontzertuetan jo izan duen *Antzinako bihotza* hunkigarriarekin. «Belaunaldi berriek ere ulertu dugu haren alde arriskutsuena», esan zuen Anarik Laboaren heriotzan. Eta agerikoa izan zen Laboaren eta hurrengo belaunaldien arteko lotura hori herenegun. Mikel Abrego baterian, Borja Iglesias gitarran eta Drake baxuan izan zuten lagun Anarik, aurretik Gorka Urbizuk izan zituen bezala. Berri Txarrak-ekoak *Lilurarik* ez modu zirrargarrian eman zuen.

Indarra ere izan zuen gauak. Xabier Montoiak dena eman zuen *Ama hilzaigu* berebizikoan. Laboaren omenez *Txerokee* diskoa bultzatu zuen kantariak, koadrozko

jaka deigarriarekin jantzita, *In crescendo* joan zen kantua eskaini zuen, Anariren taldea, Urbizu baterian Abregorekin eta Karlos Osinaga gitarran zituela.

Oholtza eta publikoan, hainbat belaunaldi egin zuten bat Laboaren gauean. Gogoz zegoen jendea, txalo egiteko gogoz, kantatzeko gogoz. Bero, hunkiturik. Hori guztiori transmititu nahi izan zien Laboaren auzoak Marisol Bastida alargunari eta Izaro eta Agurtzane seme-alabei. Eta

### Oholtza eta publikoan belaunaldi ugari egin zuten bat Laboaren gauean

zutik jarri zen frontoia jaiaren antolatzaileek familiari oroigarria eman ziotenean, amaieran, txalo zaparrada itzelaren erdian.

Gaueko hamarretan ospakizuna hasi aurretik, kantariaren omenezko plaka desestali zuten plazan, artistari eta auzo-lagunari bere izatea eskertuz. 40 urte egin zituen Laboak Antiguako bizi-

tzen. Bere janzkeraren ezaugarri zen urdin ilun kolorea auzoko paisaiaren parte bihurtua zen, musika saioen aurretik eskainitako bideoan auzotar batek esan zuen moduan.

Txiki gelditu zen frontoia. Oso txiki halakojai handiarentzat. Aspaldi zeuden sarrerak agortuak, eta kanpotik jarraitu zuen jendeak festa ederra, udakoak baino gau epelagoan.

Bideoan zioten, halaber, lotsatia zela Labo oso. «Bera tabernan zela bere kanturen bat jartzen bazuten, atera egiten zen». Herenegun haren hamaika kantu entzun ahal izan ziren, batzuk berak kantatuak bideoan, beste gehienak gaztetuak. Baina Laboak ez zukeen ziur asko tabernatik bezala frontoitik hanka egingo ostiralean. Eroso eta umoreko sentiarazteko moduko ikuskizuna izan baitzen. Eta seguruenik barre ere egingo zuen, ikusleek behin eta berriz egin zuten bezala, Ramon Agirreren antzezpenearekin. Urdin ilunez eta beltzez jantzirik, zapatila zuriak eta txapela beltza soinean, egurrezko aulki bat eskuetan, hau da, Laboaren beraren rolean, «desordena» haren arduradun izan zen Agirre, aurkezle. *Langile baten galderak* moldatuz, *Antiguotar baten galderak* botazituen, despistatuki, oholtza gaine-

tik: «Zenbat krokodilo zituen Mikel?», «Non erosten zituen biserrak?», «*Where is the Niko? The Niko is on the table.*»

Eta Niko Etxart agertu zen. Beste instituzio bat. «Jendea bero-bero sentitzen dut», zioen. *Txinaurria* abestu zuen. Laboarentzat Ximun Haranek grabaturiko *Club de disque basque* bilduma zeinen garrantzitsua izan zen gogora ekarri zuen zuberotarrak. Gitarrarekin eta «txuletarekin» igo zen oholtzara, umoretsu, aspaldian abestia kantatu gabe zegoela-eta, badaezpada ere: «Laboaren teknikarekin erraza da», esan eta ingelesez ariko balitz bezala inprobisatu zuen abestia, gero jatorrizko eran amaitzeko. «Antiguako sinfoniarekin» *Baga Biga Klick* josi zuen. Zuberoatik Nafarroa Beherera eta rocketik Otsalderen XIX. mendeko bertsoetara, Erramun Martikorenak hartu zuen oholtza. *Gaztetasuna etazahartasuna* abestu zuen, bere aitaxiri kantua lehenengoz entzun zioneko eta Laboari aditu zion lehen kantaldia gogoan.

### Gorriti, Llach, Atxaga...

Oholtzak dardar egin zuen, literalki Kukai dantza taldeak hartu zuenean. Oreak Tx-ko Harkaitz Martinez, Igor Otxoa eta Mikel Ugarte txalapartarien doinura

**40** » Marcel Camusen 'Orfeu Negro' filma estreinatu zela, 50 urte bete dira aste honetan

**42** » Agustin Fernandez Mallok poesiaren gaurkotasun eza salatu du bere saiakeran



Jendea txalo egiteko gogoz, bero eta hunkiturik zegoen hasieratik. G.G./ARP

*Martxa baten lehen notak* eta *Ez-pata dantza* eskaini zituzten. Jon Maia buru duen seikotea ohitua dago Laboaren doinuak dantzatzera, *Hmuy ila* ikuskizunean egin zuten bezala. Iker Goenaga soinu txikian lagun zutela belarrirentzat ez ezik begientzat edertasun itzela eskaini zuten.

Laboaren lagunak oholtzan, eserleketan eta pantailan ikusi ahal izan ziren, hiru ordu eta erdian. Juan Gorriti azaldu zen bideoan eta Lluís Llach segidan. Hunkiturik zirudien katalanak beren arteko topaketa labur eta sakonak oroitzeko. Laboa pertsona bezala eta artista bezala miresten zuela argi utzi zuen, «bere kuraia, emateko gogoia eta balentria miresgarriak ziren».

Bideoan ikusi ahal izan zen Bernardo Atxaga ere, Imanol Uribe zuzenduriko *Haika mutil* dokumentalean. «Kaskagorria eta azkarrak» zen kantaria idazlearentzat. Eta garraiolaria, bere abestekin hamalagarren edo hamabosgarren mendera eramane zaitzakeen garraiolaria.

#### Ordorikaren sorpresa

Poeta garaikideen eskutik batetik, eta tradizioaren eta esperimendazioaren bidetik eginiko ibilbidearen isla ere izan zen auzotarrak eskainiriko festa. Une harri-

#### ↓ Bertsoak

##### Andoni Egaña

Hau gauaren ederra,  
hain larri hain ilun,  
hain beltzik hain urdinik  
ba ote inun?  
Beltzeko ta urdineko  
maisu bat bagendun,  
Mikel gogoratzean  
ze suertea degun!  
Hain goxo hain legun  
bildu gera egun,  
auzotar ezagun,  
miresle ta lagun,  
oroimina oroipoz  
bihur dezagun.

##### Maialen Lujanbio

Baga biga ta higa,  
sorginak kantari,  
maite gure bazterrak  
lanbroan kabi.  
Ta Baztango bazterrak  
lekeitioei adi.  
Zure diskak bat, bi, hiru,  
hamaika, hamabi.  
Haika, jeiki hadi  
mutxurdin ilargi,  
zerura kantari,  
zu asmatzen ari,  
mundu berri bat gure  
herri zaharrari.

tik hizketan, Peru Basanabasa ordenagailuarekin eta Hedoi Etxarte biolinarekin zirela.

Tradizioaren bidetik Ruper Ordorika etorri zen. Gaua gidoitik atera zuen, ez baitzegoen iragarria bere emanaldia. *Urtsuako kanta* eta *Oies errondan* dabil abestu zituen, Laboari ikasiak. Aurretik, Xabi Strubellek eta Nerea Olaxak *Haize Hegoa* eder eta dantzagarri bat ekarri zuten, bosanova erara.

Mikel Laboaren zilbor-hesteak hainbat belaunaldi eta estilotako musikari eta artistak lotu zituen, eta auzokideak eta publikoa. Etenda ere, lotuta izan ziren guztiak, Antiguan.




Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio, ekitaldiaren hasieran. GARI GARAIALDE / ARP



Niko Etxartek *Baga Biga Klick* abestu zuen auzokoen laguntzaz. G.G./ARP



Hedoi Etxarte, Mariano Hurtado, Eneko Abrego eta Peru Basanabasa. G.G./ARP



Xabi Strubellek eta Nerea Olaxak *Haize hegoa* eman zuten. G. GARAIALDE / ARP



### Jatetxe, Taberna eta Kafetegien Hiztegia

ISBN: 978-84-457-2950-2  
108 orrialde • Salneurria: 3 €

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin izenpetutako kontratuen barruan. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabilera animatzen zaituztegu guztiok.

## Gure argitalpenak

HONA HEMEN EUSKO JAURLARITZAKO ARGITALPEN ZERBITZU NAGUSIAREN ARGITALPEN BERRIA.

aurrera doan herria

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

#### BANATZAILE OFIZIALAK

Ekar Euskal Kulturagintza  
Portuete, 88 (Igara Auzoa)  
20018 Donostia-San Sebastián  
Tel.: 943 31 03 01  
elkarbanaketa@elkar.com


Egatorre  
Primavera, 2 (nave 31)  
(Pol. Ind. El Malvar)  
28500 Arganda del Rey  
Tel.: 91 872 93 90  
egatorre@egatorre.com

ARGITARATZEN DU  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
ejgvpublicaciones@ej-gv.es  
www.euskadi.net/ejvargitalpenak

#### SALTOKIAK

Argitalpen Zerbitzu Nagusia.  
Liburudenda  
Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 01 68 66  
ejgvpublicaciones@ej-gv.es

# Antiguako Jaiak 2009



## MIKEL LABOA

MAITE DITUT MAITE GURE BAZTERRAK...

Abenduaren 1a zen. Goizeko 7etan goizero bezala kotxez lanera nindoala, irratian Mikel Laboa auzotarraren abesti bat jarri zuten, "Gure Hitzak" abesti ezaguna. Jarraian berri tristea eman zuten, Mikel Laboa hil zela, alegia.

Berria entzutean tristura handia sentitu nuen, bere seme-alabetaz gogoratu nintzen, bere emazteaz eta senitartekoez, eta argi eduki nuen jende askok eta askok izugarri maite genuen pertsona galdu genuela betiko.

Min izugarria eman zidan pentsatzeak ez genuela Mikel berriro ikusiko, ez genuela inoiz gehiago Antiguako Matia kalean gora eta behera ikusiko.



Mikel oso antiguotarra zen, goizero jaisten zen erosketak egitera, pote batzuk botatzera, jendearekin egotera. Halakoetan Mikel zen askotan auzotarrengana hurbiltzen zena solas egitera. Mikelen oso laguna zen Jorge Oteizak zioen bezala, bi Oteiza izan ziren, bata Oteiza, artista; bestea Jorge, pertsona. Antiguotarrok ere zorte ikaragarria izan dugu Mikelekin, bi Mikel ezagutu baititugu. Bata Mikel Laboa, artista, euskal kulturaren alde lan izugarria egin duena eta aberastasun handia utzi diguna; bestea, eta guretzat azpimarragarriena, Mikel, antiguotarra.

Mikel auzoaren eguneroko paisaia eta bizitzaren parte zen, eta zaila zen goizeren batean Matia kaletik erosketak egiten edota lagunekin poteatzen ez ikustea. Munto eta Igeldo aldetik ere asko ibiltzen omen zen. Zorte handia izan dugu, beraz, artista hau pertsona gisa ezagutu ahal izan dugulako, eta benetan pertsona handia bihurtu da guretzat.

Beraz, eskerrak eman nahiko nizkioke auzoaren partez Mikeli. mila esker Mikel auzoari eman diozun guztiarengatik!

Mila esker Mikel auzoko jai batzordearen partez, ahaztezina izan baitzen Miramar jauregian auzoko festetan eman zenuen kontzertu hura. Askotan gogoratzen gara gau majiko hartaz. Pena izan da, nahiz eta azken bi urtetan saiatu garen, berriro ere auzoko frontoian zure kontzertu bat antolatu ezin izana!

Bukatzeko, doluminak bere familia osoari, eta eskerrik asko Mikel, beti egongo baitzara auzotarron bihotzetan!.



## *Mikel Laboari*

Alegratzeko triste  
Dagoen guztia  
Hortan jardun zenuen  
Zuk Mikel maitia  
Izarren hautsak jota  
Ñir ñir kantaria  
Hegoak ebakita  
Ezpaia txoria.